

### PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	GALDAKETAKO DENBOREN ETA KOSTUEN KALKULUA	Iraupena	40
		Espezifikoa	
Kodea	UF0176		
Lanbide-arloa	FABRIKAZIO MEKANIKOA		
Lanbide-eremua	Galdaketa		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Galdaketako eta hautsen metalurgiako ekoizpena	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Galdaketa-prozesuak	Iraupena	180
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Galdaketako planoen eta aleazioen interpretazioa	Iraupena	50
	Galdaketa-prozesuen garapena		90

#### A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Trebakuntza-atal hau bat dator UC0589\_3ko LB2 eta LB3 lanbide-burutzapenekin: GALDAKETAKO ERAGIKETA-PROZESUAK DEFINITZEA

#### B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

##### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Galdaketa-eragiketa bakoitzaren denborak kalkulatzeko.

EI1.1 Doikuntza-, eragiketa- eta makina-denborak zenbatzea.

EI1.2 Fase bakoitzean denbora unitarioa kalkulatzeko, ekoizpen-kostuak zenbatetzeko faktoretzat.

A2: Galdaketa-prozesuetako fabrikazio-kostuak zehaztea.

EI2.1 Kostuaren osagaiak identifikatzeko.

EI2.2 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan galdaketa bidezko fabrikazioko suposizio praktikoa bat izanik:

- Kostu-osagaiak zehaztea.
- Fabrikazio-irtenbideak alderatzea ikuspegi ekonomikotik.
- Parametroren bat aldatzeak kostuan zer eragin duen balioztatzea.
- Konparazio-prozedura bidezko aurrekontu bat egitea.

##### Edukiak

##### 1. Galdaketako denborekin eta kostuen azterketa

- Galdaketa-prozesuetako fabrikazio-denborak zehaztea:
  - Fabrikazio-denbora unitarioa (labeak/makinak prestatzeko denbora, maniobra-denborak).
  - Sorta bat fabrikatzeko denbora.
- Galdaketa-prozesu bateko kostuak kalkulatzeko:
  - Zuzeneko kostuak.
    - Lehengaien kostua. Zuzeneko eskulanaren kostua. Labeen/Makinen amortizazioaren kostuak.
    - Erreminten kostua. Tresnen kostua: moldeak.
    - Ondorengo ebaketa- eta mekanizazio-eragiketen kostua.
  - Kostu orokorrak edo zeharkakoak: zeharkako eskulana, lantegiaren alokairua, energia, berokuntza, ura, etab.

#### C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urte baino gehiagokoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Galdaketako eta hautsen metalurgiako ekoizpena.

